



ALKATE jn./and.

Zirkular honekin batera, **Gobernu Batzordeak 2012ko otsailaren 17an (ostirala) hartutako erabakia** bidaltzen dizuegu. Bertan, hainbat neurri adosten dira *zerga eta finantza esparruetan defizit publikoa zuzentzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuaren 3. ataleko 2. artikulua* eragindako egoerari dagokionez, eta erakundeetatik jasotako ekarpenak kautelaz eteten dira

EUDELek urtarrilaren 31n bidalitako zirkularrean hartutako konpromisoaren arabera, ELKARKIDETZAko Gobernu Batzordean ditugun ordezkariak egungo egoeran langile publikoei kalterik txikiena eragiteko ELKARKIDETZAn beharrezkoak diren aldaketak onartzea defendatu zuten.

Gure ustez, Elkarkidetzaren 2012ko otsailaren 17ko (ostirala) batzarrean adostutako erabakiekin, hartutako konpromisoak bete ditu EUDELek, eta langile publikoen eskubideak kautelaz bermatzeko beharrezko gutxieneko neurriak hartzea lortu da, hori guztia Estatuko Gobernuak EPSV ELKARKIDETZAri egindako erakunde-ekarpenei dagokien hirugarren ataleko 2. artikulua zehazten ez duen bitartean.

Begirunez,